Udala · Ayuntamiento

Abadiño
Elizateko Udala

Barakaldo
CIUDAD·HIRIA

IGORRE
Herritarren zerbitzura

Galdakao
Udala

balmaseda

Trapagaran
Udala
Ayuntamiento

Plentzia

main trat

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Elorrioko udala

IBERSHIP

Zaldibar
Elizateko
Udala

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Mercure
HOTELS

amorebieta
etxano
UDALA AYUNTAMIENTO

BASAURI

Liberty
Seguros

Konecta
fundación

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

ekin
thinking together

ELGOIBAR
UDALA | AYUNTAMIENTO

ILUNION Hotels

fundación
carmen gandarias
Impulsamos tus proyectos

FUNDACIÓN
ANTONIO MENCHACA
FUNDAZIOA

BBG
Bahía Bizkaia Gas

Fundación
Síndrome de
DOWN
y otras discapacidades intelectuales
País Vasco

21
Euskal Herriko
DOWN
Sindrome
Fundazioa
eta beste adimen urritasunak

FUNDACIÓN
VÍCTOR TAPIA - DOLORES SAINZ

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

FUNDACIÓN
GONDRA
BARANDIARÁN

bbk

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

FUNDACIÓN
Susana
Monsma

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

arrigorriaga
UDALA · AYUNTAMIENTO

Getxo
bizi ezazu

AYUNTAMIENTO DE LA N. VILLA DE
UGAO-MIRABALLES
HIRI PRESTUAREN UDALA
BIZKAIA

herria gara
Sopela
SOPELAKO UDALA

lekeitioko
udala

Zalla
Ayuntamiento
Udala

LARRABETZU

Concejo de Güeñes
Zaramillo
La Cuadra
Sodupe
Güeñes

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

Abadiño
Elizateko Udala

Barakaldo
CIUDAD·HIRIA

IGORRE
Herritarren zerbitzura

Galdakao
Udala

balmaseda

Trapagaran
Udala
Ayuntamiento

Plentzia

mainstrat

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Elorrioko udala

IBERSHIP

Zaldibar
Elizateko
Udala

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Mercure
HOTELS

amorebieta
etxano
UDALA AYUNTAMIENTO

BASAURI

Liberty
Seguros

Konecta
fundación

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

ekin
thinking together

ELGOIBAR
UDALA / AYUNTAMIENTO

ILUNION Hotels

fundación
carmen gandarias
impulsamos tus proyectos

FUNDACIÓN
ANTONIO MENCHACA
FUNDAZIOA

IBARRAKO UDALA

BBG
Bahia Bizkaia Gas

ERAKUSKETA BILBOKO METROAN

Fundazioaren 30. urteurrena dela eta, Aisialdi eta Denbora Librea programako zenbait argazki Bilboko Metroan jarri ziren ikusgai. Hain zuzen ere, Zazpi Kaleak geltokian, Unamuno irteeran (8 panel), eta Deustun, Agirre lehendakaria irteeran (3 panel).



FASHION DAY

Esperientzia Ahaztezina

DOWN SINDROMEA FUNDAZIOARI “FASHION DAY” EKIMENA ANTOLATU DIO

Pandemia zela eta, Down Sindromea Fundazioak ezin izan zuen bere desfilea martxan jarri, ezta Gabonetako Jaia ere. Aisialdia sustatzen jarraitzeko, “Fashion Day” ekimena diseinatu dugu Cid FCA! Agentziaren laguntzarekin. Komunikazioa.

Jarduera honetarako, Down Sindromea Fundazioaren 40 erabiltzaile gazteren eta “LOLISSIMA” “Styling” “Freaky Nation” “JOTAONCE” moda-enpresen eta “Eder Aurre” “Alberto Sinpatron” eta “Angel amor” diseinatzaileen laguntza izango dugu. Estilismoak eta makillajea Amaia Lauzirikaren lanak dira, eta Asier Gomez moda-argazkilari ospetsuaren argazkiak, nazioarteko kanpainengatik nabarmentzen dena. Jarduerak bi orduko iraupena izango du parte-hartzaile bakoitzeko, eta egun baterako modelo izatearen esperientzia biziko dute.
Euskal Herriko Down Sindromea Fundazioaren 30. urteurrena ospatzeko Bizkaiko hainbat leku enblematikotan zehar egingo den txandakako erakusketa handi batean ikusiko da azken emaitza.
Ekimen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa du. Espazio guztietan gizarte inklusiboa aldarrikatzeko sortu da ekimen hau.

EGUTEGI SOLIDARIOA

2021. urteko egutegia BilbaoCentroko egoitzan aurkeztu zen. Hitzorduan egitasmoan kolaboratu duten hainbat aurpegi ezagun bildu ziren, besteak beste, Ibone Bengoetxea Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako diputatua, Teresa Laespada Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko diputatua, Eder Aurre moda diseinatzailea, Haizea Gómez abeslaria eta argazkilaria, Amagoia Loroño Akordeoien Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria, eta Teresa González, dantzaria eta ballet irakaslea.

12 | CIUDADANOS

EL CORREO

Una sonrisa Down para cada mes de 2021

Rostros muy populares posan con doce niños y jóvenes del almanaque de la Fundación Síndrome de Down País Vasco, que ya está a la venta por 5 euros

ITSASO ÁLVAREZ

El Parlamento pide ayudas para pagar las haurreskolas

N. P. VALLEJO

ABENDUAK 3.
DESGAITASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren 3a Desgaitasunaren Nazioarteko Eguna denez, Autonomia Pertsonaleko Programako eta Nerabeentzat Autonomia Pertsonaleko Programako taldeek hainbat desgaitasuni buruzko sentsibilizazio eta ezagutza lana egin zuten. Horretarako lau film labur ikusi zituzten eta, ondoren, horren inguruko hausnarketa egin zuten.

3 de diciembre: Día Internacional de la Discapacidad



2021eko AGENDA

EHDSFko Eguneko Arreta Zentroko erabiltzaileek 2021. urterako agenda diseinatu dute berriz ere.

Agenda hau pentsatu eta diseinatu dute desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat (koloreekin, aste osoko ikuspegia, urtaroak, egun garrantzitsuak nabarmenduta, pegatinak eta abar), baina baita egunerokotasunerako agenda alai eta positiboen bila edo opari on bat egiteko ideia bila dabilen beste edonorentzat ere.

ESPAINIAKO DOWN FAMILIEN TOPAKETA NAZIONALA

Nagore Nietok Down Espainiak urtero antolatzen duen Down Familien XX. Topaketa Nazionalean hartu zuen parte, panel hizlari modura.

Hain zuzen ere, “Hacia dónde va el envejecimiento en PcDI” (Norantz doa zahartzea DIPetan) izenburua zuen elkarrizketa ireki batean hartu zuen parte Down sindromea duten pertsonen beste senide batzuekin.

AZAROAREN 25A. GENERO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25a Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Bilboko Udalak irakurketa ireki eta aldarrikatzailea egiteko hitzordua antolatu zuen Arriaga Antzokian beste behin; bertan, ordezkari politikoak, entitate sozialetako kideak eta pertsona anonimoak elkartu ziren.

Fundazioan parte hartzen duen Maitane Fernándezek Arjona Delia poetaren testu bat irakurri zuen.

PERTSONA BOLUNTARIOEN TOPAKETA

Boluntariotza Erakundeen Foroaren bidez (EHDSF ere foroaren parte da), boluntarioen topaketa batean hartu genuen parte, #boluntarioenZaintza izenarekin; boluntarioak zaintzeari lotutako hainbat ekintza egin ziren.

EUSKARALDIA

Fundazioak Euskaraldian hartuko du parte; egitasmo horren helburua euskararen erabilera areagotzea da, hizkuntza ohiturak aldatuz.

GOAZEN

Goazen saioaren (ETB1) denboraldi berrian Endika Zamalloa izango dugu, fundazioko erabiltzailea eta Laneko langilea (Forum Sport).

ARIANA FERNÁNDEZ DE BOBADILLA,

GOLF TXAPELDUNORDE

Ariana Fernández de Bobadilla Espainiako FEDDI Golf txapelketako txapeldunorde geratu zen desgaitasun intelektuala duten pertsonekin Santanderren ospatutako lehiaketan.

IFH CONSULTING ENPRESAREKIN LANEAN

Fundazioak Gizartea eta Berrikuntza elementuak landu eta horietan sakondu du IFH Consulting enpresaren babesarekin.

EHDSF ETA F.C. ASTRABUDUA

EHDSFk eta FC Astrabudua taldeak hitzarmena sinatu dute futbol talde berri bat sortzeko; desgaitasuna duten pertsonek osatuko dute.

Fundaziotik inklusioaren aldeko apustua egingo dugu beti.

GIZARTE INKLUSIOA ETA DESGAITASUNA MASTERRA (DEUSTUKO UNIBERTSITATEA)

Oscar Seoane, Fundazioaren zuzendari gerentea, eta Maitane Dieguez, Etxeratu programaren arduraduna, hizlari gisa bertaratu ziren Deustuko Unibertsitateko Gizarte Inklusioa eta Desgaitasuna Masterrean. Autogestioa izan zuten hizpide.

ARRETA GOIZTIARREKO MASTERRA (EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA)

Laura Campañak, Arreta Psikopedagogikoko, LEC eta Joko Taldearen programen arduradunak, EHUko Arreta Goiztiarreko master propioan hartu zuen parte, hizlari modura. Landutako gaia "Estudio de caso: diseño y ejecución de un plan de intervención" izan zen (Kasuaren azterketa: esku hartze plan bat diseinatu eta gauzatzea).



AISIALDI ETA DENBORA LIBREKO PROGRAMA

Programa honek aktibo jarraitu zuen eta jarduera eta berrikuntza guztiak blogean bildu dira.

Antolatutako ekintzetako bat pintura sariketa bat izan da; fundazioko pertsona erabiltzaile guztiek hartu ahal izan zuten parte. Saria 2021eko egutegian parte hartzea izan zen.

ETXERATU PROGRAMA

Txurdinagako pisuko lagunek animatu egin gintuzten jarduerak egiteari ez uzteko, denbora okupatzen saiatzeko, errutinak jartzeko eta gauza berriak ikasteko aprobetxatzeko.

“MARTXOAREN 21A. DOWN SINDROMEAREN MUNDUKO EGUNA”

Horren egun garrantzitsua ospatzeko, fundazioak, Ekoetxea Urdaibairen egitasmoari esker, jarduera ludiko eta kulturalez betetako jardunaldia antolatu zuen; pandemiaren ondorioz bertan behera utzi behar izan zen.
2021. urtean ospatu ahal izatea espero dugu.

Zuzeneko konexioak ere egin genituen.

MARTXOAK 21 DOWN ESPAINIA KANPAINA

Egin ezazu bat #LosVerdaderosInfluencers (benetako influencerrak) kanpainarekin Down Sindromearen Munduko Egunean.

“MUGI ZAITEZ AUKERA BERRIETARAKO”

Zubiarte saltoki gunearen inplikazioari esker fundazioaren argazki erakusketa inauguratu zen. Gure kolektiboaren gaitasunen sentsibilizazio eta ikusgarritasun ekintza hau XXX. urteurrena dela eta ospatu nahi diren ekintzen programaren parte da.

MIKEL GARCIA,
ATLETISMOKO TXAPELDUN

Beste behin ere Mikel Garcíak harritu egin gaitu Polonian pista estaliko mundu mailako txapelketan lortutako markekin.

“La bala de Irala” ezizenez ezagutzen den kirolaria 60 metro lauetan saiatu zen, eta urrezko domina lortu zuen; 200 metrotan lortutako urrezko dominari gehitzen zaio.

Fundaziotik Mikel zoriondu nahi dugu eskuratutako lorpenengatik, baina, batez ere, bere izaeragatik eta lan egin eta ahalegintzeko duen gaitasunagatik.

Javi Conderen atletismo eskola ere zoriondu nahi dugu, hasieran oso urruti ikusten diren erronkak lortzea posible dela frogatzen baitu, gogoa, lana eta inplikazioa baliatuz gero.

AU DAUKATEN PERTSONENTZAKO ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO MINTEGI TEKNIKOA

Otsailean “Seminario técnico sobre empleo público para personas con DI” mintegian hartu genuen parte (DI daukaten pertsonentzako enplegu publikoari buruzko mintegi teknikoa), Plena Inclusión erakundeak Toledon antolatu zuena; bertan administrazio publikoei zuzendutako “Premios de Empleo Público y Discapacidad Intelectual” sariak banatu ziren (Enplegu publiko eta desgaitasun intelektualeko sariak). Hirugarren sektorearekin kolaboratzeari emandako saria Bizkaiko Foru Aldundiak lortu zuen.

Mintegian DI duten pertsonek lanera sarbidea eta laneratze hobea izatea sustatzen duten berariazko deialdien kudeaketaren inguruko esperientziak eta jardunbide onak ezagutu ahal izan genituen. Horrekin batera, DI duten pertsonentzako berariazko deialdiaren protokoloaren zirriborroa aurkeztu zen. Arratsaldean, barne promozio eta deialdietan profilen dibertsifikazioari buruzko tailerretan parte hartzeko aukera izan genuen.

“CAMPEONES DEL HUMOR” ANTZEZLANA

Campeones del Humor antzezlanaren prentsaurrekoan izan ginen; otsailean Euskalduna Jauregian aurkeztutako antzezlan berri eta filmeko aktore Gloria Ramos eta José de Lunarekin gozatu ahal izan genuen bertan. Han haien proiektu berria izan zuten hizpide: “familia guztiarentzako komedia antzezlana izango da; protagonista guztiek elkarrekin alokairuan bizitzera joatea erabakitzen dutenean hasiko da trama”.

LA SALVE FABRIKARA BISITA

Merkataritzako laguntzailea profileko bigarren mailako ikasleak La Salve fabrikan izan ziren, instalazioetan bisita informatiboa egiten.

Aukera bikaina izan zen ikasleek ikasgelan barneratutako ezagutza teorikoak zabaltzeko, merkataritzako langile laguntzaile batek lan agertoki erreal batean egiten duen praktika ikusiz. Biltegian egin beharreko lanak bete behar izan zituzten (eskaerak prestatu, jarri, biltegi bat kudeatzeko sistema, eta abar), eta, bide batez, profilari lotutako zenbait galdera egiteko aprobetxatu zuten.

La Salveri eskerrak eman nahi dizkiogu bisita oso interesgarria izan zelako.

FAMILIEN ESKOLA

Urtarrilean ilusioz bete gintuen proiektu berri batekin hasi ginen: familien eskola.

Hilean behin Zornotzan zein Bilbon eskaintzen diren tailerrak dira, eta irakatsiko den gaian erreferente den pertsona profesional batek ematen ditu.

Tailer erabat praktikoak dira, ordubete eta erdikoak; sarrera teoriko txiki bat eskaintzen da lehenengo (15-20 minutu ingurukoa), familiek hizpide izango dituzten gaiak partekatzeko eta zalantzak argitzeko; gaiak familiek aukeratzen dituzte.

SARA MATARI ELKARRIZKETA

Mikel Aresen Ama, Bagatzako ikasle ohia

Nola ezagutu zenuen “aniztasun funtzional, kultural, sexual eta belaunaldikoaren eremuko hezkuntza programa” proiektua?

EHDSF eta Barakaldoko udalak proiektua hasi zenutenean, Mikel Bagatzako eskolako gela egonkorrean zegoen eta bertara gerturatu zineten ikasleak eta irakasleak sentsibilizatzeko.

2019an hasi zenuten irisgarritasun kognitiboa zentru osoan zehar eta Mikelek materialak erabiltzeko aukera izan du.

¿Zer iritzi duzu irisgarritasun kognitiboaz?

Oso garrantzitsua ikusten dut zailtasunak dituzten pertsonek irisgarritasun kognitibo desberdinetara sarbidea izatea. Adibidez, Mikelek ezin du irakurketa globala irakurri, beraz hitzak piktogramekin lagunduta badaude ulermena askoz ere errazagoa da.

¿Irisgarritasun kognitiboak lagundu izan dio Mikeli bere egunerokoan?

Kognitiboki eskuragarritzat jotzen ditugun tresnak erabiltzea eta ikastea oinarrizkoa izan da Mikelentzat, familia osoarentzat eta gure sare sozial hurbilarentzat.

Mikel dutxatzen ikasi du, beste gauza batzuen artean sekuentziazio piktogramen bidez. Pauso bakoitza ikasi bitartean piktogramak erabili ditugu, eta barneratzen joan denean kendu izan ditugu.

Egutegi mota desberdinak ere erabiltzen ditu, horietan piktogramak jarri daitezkela, eguneroko ekintzetatik hasita, urteko egunera arte.

Mikelek bere inguruko jendeari zer komunikatu nahi dion ulertu ezin dugunean, fundazioak, udalaren lankidetzarekin batera, familiei eta udaleko eskolei eman dizkion Zeinuak eta Kinestemak erabil ditzakegu.

Zeintzuk uste duzu izan behar direla proiektuaren hurrengo pausoak?

Irisgarritasun kognitiboa eskoletatik kanpo ere ezagutarazi egin behar dela uste dut. Pertsona guztientzat erabilgarria izan daiteke, desgaitasuna izan edo ez izan; atzerritarrak, baita ingurunea ezagutzen ez duten pertsonak.

Desgaitasun bat duen pertsona baten ama izanda, zailtasunak dituzten pertsonak Barakaldoko udalerriko garraio publikoak, administrazioak etab. erabiltzea gustatuko litzaidake.

MIKEL JUARISTI IZAGUIRRE ELKARRIZKETA

Gurutzeta Eskolako Zuzendaria

Behar bereziak dituzten ikasleak daude eskolan?
Eskolan hezkuntza premia bereziko 50 ikasle inguru ditugu eta horietako 5 gela egonkorrean kokatuta daude.
Eskola moduan lehendik inklusio bidean geunden eta hainbat gauza burutzen genituen, baina zuen moduko elkarteek ematen diguzuen ideia eta materialekin inklusio bidea errazagoa egiten zaigu.
Nahiz eta gela egonkorra garrantzi handia daukan eskolan, gure inklusio proiektuaren barruan ikasleek gela arrunta bere erreferentzia izatea nahi dugu, nahiz eta gela egonkorrean jarduera desberdinak burutzen dituzten.

Noiz ezagutu zenuten "aniztasun funtzional, kultural, sexual eta belaunaldikoaren eremuko hezkuntza programa" proiektua?
2017. urtean ezagutu genuen, proiektuarekin hasi bezain pronto eta urtero kontaktuan egon gara fundazioarekin bai hitzaldiak egiteko, bai irisgarritasun kognitiboarekin hasi eta jarraitzeko.

Zer iruditzen zaizue?
Oso material erabilgarria da. Lortutako materialarekin hainbat erabilera desberdin burutu ditugu. Adibidez, piktogramak dituzten egutegiak eta menuak sortzeko materialak lehen hezkuntzako zikloko geletan ipini ditugu non egunero erabiltzen dituzten modu inklusibo batean zailtasunak dituzten ikasleak eta zailtasunak ez dituztenak. Gela egonkorreko ikasleek material guztia eskuragarri dute euren gelan eta egunero erabiltzen dituzte baita ere.

Zer espero duzue hurrengo urteetan egitea?
Proiektu hau aurrera jarraitu behar duela uste dugu eskolan. Honekin hasi eta gero, irakasle askok piktogramen garrantzia ulertu dute eta hauek egunerokotasunean erabiltzen hasi dira.
Gainera eskolatik kanpo erabilgarriak direla uste dugu, adibidez ludoteka edota beste eraikin batzuetan irisgarritasun kognitiboa ezartzea onuragarria dela uste dugu.

AMAIA DEL CAMPORI ELKARRIZKETA, BARAKALDOKO ALKATEARI ELKARRIZKETA

Barakaldo hezkuntza inklusiboarekin arduratuta

Zer balorazio egiten du Udalak proiektuak hezkuntza ingurunean izan duen eraginari buruz?
Udaletik, Hezkuntza arloko profesionalek proiektu honen inguruan egin duten jarraipenaren arabera, proiektuaren balorazio oso positiboa egiten da, funtsean eskola komunitate osoaren kontzientziazioan eta sentsibilizazioan eragiten delako, zeinarekin ikasleek edo adimen desgaitasuna duten pertsonek egunero elkarreragiten baitute: ikaskideak, irakasleak, atezainak, gurasoak...

Zer urrats dira garrantzitsuak desgaitasun intelektuala duten ikasleen parte-hartze osoa bermatuko duen hezkuntza ingurunea lortzeko?
Ni ziur nago tresnarik onena formakuntza dela. Beharrezkoa da eskola komunitatera eta ikastetxeetako bizitzan parte hartzen duten eragile guztiei informazio eta formakuntza ailegatzea, hau ezinbestekoa da ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko, desgaitasunen bat izanda edo ez. Irakasleek, jantokiko begiraleek, atezainek eta haurrek ikaskideen ezaugarriak ezagutzen dituztenean, haien inguruan egon daitezkeen mito eta uste faltsuak alde batera uzten dira, eta orduan lortzen da berdintasunean parte hartzea.

Horregatik, programa honen alde egiten dugu, ziur gaude oso garrantzitsua dela ikastetxeetan horrelako tailerrak ematen jarraitzea eta horien edukia etengabe aldatzen edo eguneratzen joatea, eskola komunitateak berak emandako erantzunen arabera.

Zer ekarri dio Barakaldoko udalerriari ikastetxeetan irisgarritasun kognitiboa ezartzeak? Irisgarritasun kognitiboa Barakaldoko Udalaren Aginte Planean al dago?
Jakina, laguntza handia da ikastetxeetan dagoen hezkuntza-komunitatearentzat. Ematen diren materialei esker, lehen aipatutako prestakuntza osatzen da. Baliabide hori oso erabilgarria da haietara sarbidea duten pertsona guztientzat, eta hala jakinarazten digute zentroetatik.

Zentzu horretan, Barakaldo Hiri Hezitzaileen Sarekoa dela oinarritzat hartuta, non bere maximoetako bat, hiri osoa ikuspegi pedagogikotik zeharkatzea den, ziur gaude irisgarritasun kognitiboko baliabide horiek ikasgeletatik edo eskoletako harresietatik harago atera daitezkeela. Kasu honetan, udal teknikariekin batera baloratuko dugu hori, Down Sindrome Fundazioarekin lankidetzan.

Dena den, irisgarritasun kognitiboaren ezarpena lantzen ari gara dagoeneko eta, zalantzarik gabe haren jarraipenaren aldeko apustua egiten dugu, egokia eta gomendagarria dela uste baitugu.

Zure ustez, zer irisgarritasun maila du Barakaldoko udalerriak? Zer urrats izango lirateke hurrengoak?
Aspalditik ari gara alderdi horretan lanean. Uste dut irisgarritasun maila ona dugula, baina, gauza guztietan bezala, beti dago hobetzeko aukera, eta norabide horretan aurrera egiten jarraitzen saiatzen gara. Aurrera egiten jarraitu ahal izateko Udalean dugun tresnarik onenetako bat, hain zuzen ere, honako hau izan liteke: eskola programa horiek ezartzeak ekartzen dituen esperientziak eta emaitzak hiriari zabaltzea, bai eta herritarren artean prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak zabaltzea ere. Bide hori Euskal Herriko Down síndrome Fundazioarekin berarekin egin nahi dugu, zalantzarik gabe.

ANIZTASUN FUNTZIONALAREN, KULTURALAREN, SEXUALAREN ETA BELAUNALDIEN ANIZTASUNAREN ARLOKO HEZKUNTZA-PROGRAMA

Gaur egun, asko hitz egiten da adimen-urritasuna duten ikasleak munduan garatzearen garrantziaz, ikasgeletako bizitzaren parte izateaz eta gizarte-harremanak eta garapen osoa bultzatuko dituen hezkuntzan parte hartzeaz. Kezka horiek bereziki izan dira beren ikasgelan desgaitasunen bat duten ikasleak dituzten profesionalentzat.

Hala ere, oso gutxitan hausnartu da gai horiei buruz adimen-urritasuna duen pertsona bat eskolatuta ez dagoen geletan.gizartea guztiona eta guztiontzat izan dadin lortzeko, hasiera-hasieratik eta egunero arlo guztietatik lan egitea ezinbestekoa da.

Horregatik, EHDSFk, Barakaldoko Udalaren laguntzarekin, elkarrekin lan egin dugu 2017az geroztik, uste dugu hezkuntza-ingurunea oinarrizko zutabeetako bat dela egungo eta etorkizuneko gizarte inklusibo hori lortzeko.

Denbora horren ondoren, garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zaigu proiektu honetan parte hartu duten eta parte hartzen duten eragileen hausnarketak eta balorazioak aurkeztea.

• **Entzun Gure Nahia lantaldea (EGN).** Etapa berri hau prestatzeak zeharkako lana eskatzen du entitatearen programa guztietan, baina, aldi berean, jarduera-ildoak garatu behar ditugu erabiltzaileekin beraiekin lan eginez. Horrela hasi zen 19/20 ikastaroa EGNrekin batera lan-taldea sortuz. Hasierako helburua, etorkizunari buruz eta bizitza proiektuan lanean hasteko zituzten haien ideiak, planak, beldurrak eta abar biltzea zen. Oso ideia interesgarriak sortu dira gure etorkizuneko esku-hartzeen oinarriak finkatuko dituzten eta 2021ean zehar aurkeztuko diren lan saioak.

• **Pertsonarengan Zentratutako Plangintza (Pzp).** Esperientzia desberdinak hasi dira, helburu nagusia jendeari bere bizitza proiektua planifikatzen laguntzea da, euren helburu pertsonalak errespetuan, duintasunean eta pertsonaren gaitasunean oinarritutako ikuspegi batetik lortzen laguntzeko.

Beharrezkoa da arreta integrala eskaintzea bizitza ziklo osoan zehar, ahalik eta autonomia handiena lortzeko. Zaintzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak lantzeko planak eginez eta pertsona bakoitzari zuzendutako esku-hartze planak garatuz, bizitza aktiboa eta gogobetetzailea lortu eta helduen bizitza ahalik eta betea izatea ahalbidetuz.

Baina horrez gain, badira maila altuagoko aitortza eskatzen duten alderdiak ere: erretiroa arautzea, laguntza pertsonala aitortzea, irisgarritasuna edo etxebizitza eredu berriak, besteak beste. Bizi kalitatea bermatuko duten alderdiak konplexuagoak izango dira, nahi den zahartze aktibo, asebeteko eta kalitatezkoa lortzeko funtsezko piezak baitira.

Bide hori guztia ez da bideragarria baldin eta AUa duten pertsonek beraiek prozesu horretan parte hartzen ez badute, galdetzen ez bazaie eta ez badira beraien bizitza proiektuak beharrezko laguntzarekin garatzen dituztenak.

Hori dela eta, nahitaezko etorkizuna lortzeko lanean ari diren AUa duten pertsonen gogoetekin bukatuko dugu:

“Nire planak egin eta bidaiatzea gustatuko litzaidake”; “Nire lagunak gertu izatea gustatuko litzaidake”; “Erabakitzen jarraitu nahi dugu”; “Gizartean bat gehiago naiz”; “Zenbat eta lehenago hasi lanean, orduan eta prestatuago egongo gara”; eta hasierako esaldia: “Nire etorkizuna iritsi da dagoeneko”.

(“#seremosmasmayores” bideotik ateratako esaldiak Asociación de autogestores Entzun gure nahia.)

Zalantzarik gabe, jende askorentzat etorkizuna iritsi da eta badakigu askori iritsiko zaiela. Haien nahiak ez dira desgaitasunik ez dutenen pertsonen desberdinnak, baina haien nahiak lortzeko, gizarteko gainerako pertsonek gure aldetik egiten dutenaren araberakoa izango da.

Erreferentzia bibliografikoak:

Fernández, H., Nieto,N., Gullón, N., Aizpiri, O, García, S. y Aguado, V. (2017-2019) El proceso de envejecimiento. Calidad y bienestar socio-emocional en las personas con DI y sus familiares. Un punto de partida. FSDPV con el apoyo de DFB

Floréz,J., Garvía, B. y Fernandez-Olaria, R.(2.015). Síndrome de Down: Neurobiología, Neuropsicología, Salud mental. Bases para la intervención en el aprendizaje, la conducta y el bienestar mental. Madrid:CEPE.

Heller, T. (2009). Envejecimiento y discapacidad intelectual. Revista española sobre Discapacidad Intelectual.

Navas,P., Uhlmann,S., y Berástegui, A. (2014). Envejecimiento Activo y Discapacidad Intelectual. Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Subdirección General de Documentación y Publicaciones.

Errealitate berri honek **erronka eta aukera** bikaina suposatzen du bai AUa duten pertsonentzat, bai familientzat, profesionalentzat, administrazioentzat eta, oro har, gizartearentzat. Etapa honetan sortzen diren beharretara egokitutako zerbitzuak diseinatu eta eskaini behar ditugu bai AUa duten pertsonentzat, bai haien familientzat.

Aipatu dugun bezala, gainerako gizartearekiko desberdintasun garrantzitsua da, etapa berri honetan ez dugu aurkituko aztertu edo hausnartzeko aurreko eredu edo esperientzirik, ezta datu edo ikerketa nahikorik ere gure esku hartzeak bideratu ahal izateko.

Pertsona bakoitzak zahartze desberdina du, izan ere, prozesu honetan, adierazi dugun moduan, hainbat faktorek eta ezaugarriek, familiakoak zein sozialak, esku hartzen dute, baina AUa duten pertsonen kasuan, faktore horiez gain, desgaitasun mota ere araberakoa izango da. eta bere ezaugarri espezifikoak (Heller,T., 2009).

DSa duten pertsonen kasuan, frogatu da gainbehera natural goiztiarra izaten dutela eta litekeena dela zahartze patologiko goiztiarra garatzea, Alzheimer gaixotasuna pairatzeko arriskua areagotuz. Egindako ikerketek erakusten dute osasun arazo batzuk, narriadura funtzionala eta kognitiboa aurkezteko arrisku handiagoa dagoela.

Alderdi horiek guztiak hobeto ezagutzeak eta pertsona bakoitzari buruzko datuak izateak haien bilakaera ezagutzea ahalbidetuko digute eta horietako bakoitzari egokitutako prebentzio eta esku-hartze programak diseinatzen lagunduko digute, hauek, neurri handi batean, baldintzatuko dute euren bizi kalitatea etapa berri honetan.

Denbora tarte horretan, AUa duten pertsonei ez ezik, haien familiei ere eragiten dieten behar berriak agertu dira, bai norbanakoan bai familiako bizi kalitatean (Navas et all., 2014). Ildo horretatik, kontuan hartu behar da familiek eurek, eta zehazki gurasoek, beraien zahartze prozesua ere bizi dutela. “Zahartze bikoitzaz” hitz egin genezake.

Premisa horietatik abiatuta eta prebentzio esparrua abiapuntu gisa hartuz, entitatearen erabiltzaileekin estrategiak eta etorkizuneko hobekuntzak finkatuko dira, Down sindrome eta Euskal Herriko beste adimen

urritasunen Fundaziotik (EHDSF) etapa hau lantzea eta prestatzea helburu duten esku-hartzeak burutzen hasi gara. Zehazki:

• 2017an **“Zahartze prozesua. Kalitatea eta ongizate sozio-emozionala AUa duten pertsonengan eta haien familietan”** ikerketarekin hasi ginen. Modu zehatz eta sistematikoan, 40 urtetik gorako AUa duen pertsonaren eta bere senitartekoen ongizate emozionalarekin lotutako premia zehatzak aztertzea du helburu.

Horretarako, informazioa eta datuak urtero biltzen dira tresna estandarizatuen bidez, bai AUa duten pertsonen aldetik, bai haien erreferentziazko familiako kide nagusiaren aldetik.

• **Lan Taldeak** sortu dira: Zahartze prozesuetan espezializatutako elkarte eta profesionalekin harremanak eta lankidetzak ezarri dira. Zehazki, gaur egun Down Espainia eta Zehartzaroa (Euskal Geriatria eta Gerontologia Elkartea) Helduen Bizitza eta Zahartze taldeko eta Zehartzaroa taldearen parte gara, non urrats garrantzitsuak ematen ari dira.

• **Neurobai proiektua.** Entitatearen barruan, erabiltzaileen sentsore eta maila kognitiboan estimulazio pertsonalizatua eta bateratua ahalbidetzen duen sistema eta metodo berri bat izango dugu laneko eta prebentzioko metodo gisa.

“NIRE ETORKIZUNA IRITZI DA DAGOENEKO”

Adimen urritasuna duten pertsonen heldutasuna eta zahartzea

Nagore Nieto Ripa. EHDSFko Eguneko Arreta Centroa eta Zahartzea Etaparen Arduraduna

Zahartzea pertsonen bizitzan parte den prozesu naturala da. Bidaiatutako urteen, bizitako esperientzien, lorpen eta porroten, gure osasunaren, gure inguruneko aukeren eta abarren emaitza da.

Pertsona bakoitzak dituen esperientziak etapa honetara iristeko eta aurre egiteko baldintzatzen ditu, horrela modu positiboago eta asebetegarriagoan bizi ahal izatea edo alderantziz bizitzea egin dezakete. Baina, etapa hau nahiko berria eta desberdina da adimen urritasuna duten pertsonentzat (AU) eta Down sindromea dutenentzat (DS).

Gaur egun, ohikoagoa da adineko DS duten pertsonak ikustea. Gaur egun, batez beste 60 urte inguruko bizitza itxaropena dute, baina duela 50 urte inguru, 25 urte inguruko bizi itxaropena zuten (Florez, J. Et all. ., 2015). Egile horiek berak adierazi dute faktore asko izan direla errealitate berri hori lortzeko garaian eragina izan dutenak: “Osasun baldintzak ez ezik, gizarte eta hezkuntza baldintzak ere hobetu dituzte nabarmen, eta horrek gaitasun komunikatiboak, kognitiboak, sozialak eta emozionalak hobetzea aukerak handitu ditu”.

Desgaitasun kontzeptuaren bilakaera aldaketa garrantzitsuak eta erabakigarriak bizi izan ditu. Arreta goiztiarrean aurrerapen ugari daude, urteetan zehar eskola inklusioaren esperientziak areagotu egin dira; etengabeko prestakuntzarako sarbidea dago; lan munduan txertatzen joan gara pixkanaka-pixkanaka eta, gero eta esperientzia gehiago daude bizitza independentearen eta autokudeaketaren inguruan.

Esperientzia horiek guztiek gaur egun AUa duten helduak orain dela hamarkada batzuetako adin bereko pertsonengandik oso desberdinak dira eta, aldi berean, etorkizuneko hamarkadetakoekin alderatuta oso desberdinak izango dira.

Denbora guzti honetan, autonomiaren sustapena oso modu konkretuan landu da, etapa bakoitzean laguntza emateak garrantzi handia izan du eta, zalantzarik gabe, jarraitu beharrekoa da. AUa duten pertsonak eta haien familiak prest daude bizimodu inklusibo, parte hartzaile eta asebete batean elkarrekin lan egiteko, baina ondo zehaztutako baliabide eta laguntza eskuragarriak beharko dituzte.

AURKIBIDE

4 “Nire Etorkizuna Iritzi Da Dagoeneko” Adimen urritasuna duten pertsonen heldutasuna eta zahartzea
7 Aniztasun funtzionalaren, kulturalaren, sexualaren eta belaunaldien aniztasunaren arloko hezkuntza-programa
8 Amaia del Campori elkarrizketa, Barakaldoko alkateari elkarrizketa
9 Mikel Juaristi Izaguirre elkarrizketa, Gurutzeta Eskolako Zuzendaria
10 Sara Matari elkarrizketa, Mikel Aresen Ama, Bagatzako ikasle ohia
11 Familien Eskola
12 “Campeones del Humor” Antzezlana
12 La Salve Fabrikara Bisita
13 AU Daukaten Pertsonentzako Enplegu Publikoari Buruzko Mintegi Teknikoa
14 Mikel Garcia Atletismoko Txapeldun
15 “Mugi Zaitez Aukera Berrietarako”
16 “Martxoaren 21a. Down Sindromearen Munduko Eguna”
16 Martxoak 21 down Espainia Kanpaina
17 Aisialdi eta Denbora Libreko Programa
17 Etxeratu Programa
18 Gizarte Inklusioa eta Desgaitasuna Masterra (Deustuko Unibersitatea)
18 Arreta Goiztiarreko Masterra (Euskal Herriko Unibersitatea)
19 IFH Consulting Enpresarekin Lanean
19 Ariana Fernández de Bobadilla Golf Txapeldunorde
20 EHDSF eta F.C. Astrabudua
21 Pertsona Boluntarioen Topaketa
21 Euskaraldia
21 Goazen
22 Espainiako Down Familien Topaketa Nazionala
22 Azaroaren 25a. Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna
23 Abenduak 3. Desgaitasuaren Nazioarteko Eguna
23 2021eko Agenda
24 Egutegi Solidarioa
25 Fashion Day: Esperientzia Ahaztezina
26 Erakusketa Bilboko Metroan

2020. urtearen bereizgarria COVID-19ak eragindako pandemia izan da eta, logikoa denez, gure sentsibilizazio, dibulgazio edota prestakuntza jarduerak, besteak beste, nabarmen murriztu dira. 2021ean fundazioaren DNAren parte diren jarduerei berriz ekin ahal izatea espero dugu, erabiltzaileei zein familiei poz izugarriak ematen dizkieten jarduerak, alegia: moda desfilea, ibilbide solidarioa, eta abar.

Fundazioaren 30. urteurrena patxadaz ospatu ahal izatea ere espero dugu, 2020. urterako planeatu genuen moduan.

Guzti-guztioi osasuna eta bizipoza opa dizkizuegu!

DOWN magazine 2020

Argazkia: Asier Gómez

"NIRE ETORKIZUNA IRITZI DA DAGOENEKO"

Adimen urritasuna duten pertsonen heldutasuna eta zahartzea

Aniztasun funtzionalaren, kulturalaren, sexualaren eta belaunaldien aniztasunaren arloko hezkuntza-programa

ELKARRIZKETA

- Amaia del Campo (Barakaldoko Alkateari)
- Mikel Juaristi Izaguirre (Gurutzeta Eskolako Zuzendaria)
- Sara Mata (Mikel Aresen Ama, Bagatzako ikasle ohia)

Euskal Herriko DOWN Sindrome Fundazioa
eta beste adimen urritasunak